

azken zenbakia



..kioskoan salgai..

datorren zenbakia

aldizkariak

sexuak

internet

literatura

zinema

musika

kirolak

protagonistak

fotomaton

albisteak

iruditan

beste atalak

Buletina jaso

Idatzi zure e-maila

bidali

harpidetza egin

Istaila

berriak

XII. Sagar Uzta, sagarraren jaia Astigarragan

2012-09-20



Irailaren 27tik 30era bitarte, sagarraren azokan, sagardo dastaketan eta 2012ko lehen muztioaren elaborazio prozesuan oinarritutako festak makina bat jarduera

dakartza Astigarragara, tarteant, sagarraren eratorriekin egindako pintxo-poteoa eta V. Sagar Uzta argazki rallya.

--

Sagarraren eta sagardoaren kultura ezagutzera eman nahi duen jaia da urtero Astigarragan antolatzen duten Sagar Uzta. Aurtengoa, hamabigarren edizioa, datorren irailaren 27an –osteguna– hasi eta 30ean –igandea– amaituko da.

Lau egunez, beraz, sagardoa dastatzeaz gain, sagardogintzaren alderdi ezberdinak eta honen usadiozko elaborazio prozesua gertutik ezagutzeko aukera izango da bertatik bertara: kirikoketa, pisoiekin sagarra jotzea, txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.

Denen neurrirako jarduerak

lazko arrakastaren ostean, Euskal Herriko sagarren kata gidatua eta sagar tarta lehiaketa ere antolatuko dituzte. Horrez gain, bosgarren urtez, eskualdeko sagardogileek ogibide honi loturiko herrikirol erakustaldia egingo dute: kizkiarekin sagarrak bildu, leran garraiatu eta ondoren bikitu egin beharko dituzte.

Berrikuntza gisa, gainera, Astigarragako taberneak sagarraren eratorriekin egindako pintxo-poteoa eskainiko dute ostegunean –hilak 27– arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Bestalde, Sagardoetxea Euskal Sagardoaren Museoa Santiagomendiko Sagardo Bidea ibilbide tematikoa aurkeztuko du bertako laugarren gune gisa; ezagutu nahi duenak aldez aurretik eman behar du izena info@sagardoarenlurraldea.com helbidera idatzita.

V. ARGAZKI RALLY DIGITALA

XII. Sagar Uzta jaiak iraungo dituen lau egunetan zehar eginiko argazkiak lehiaketara aurkeztu ahal izango dituzte interesatuek.

Zabaldur



estekak

Info gehiago eta egitarau zehatza gazte

zabaldur



eguna

harpidedunen zuloa
bideoak

Maitane Azpiroz



gunearen mapa

www.gaztezulo.com · info@gaztezulo.com · 943 45 72 50

lege oharra

RSS

diseinua & garapena: eragin.com